

Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

JALGI HADI PLAZARA!

Zeure ingurua aprobeztatuta:

- ✓ Ba al duzu lokalik, edo ezagutzen al duzu lokala duen inor? Bada, ezagutu egin nahi dugu! **Graba ezazu** bideo labur bat telefonoarekin, erakutsi non dagoen, nolakoa den, nork erabiltzen duen, zertarako erabiltzen duzun/duten, zenbat denbora ematen duzun/duten han... **Eraman** ikasgelara, eta **erakutsi** ikaskideei.

Internet aprobeztatuta:

- ✓ Ezagutzen al duzue *SuperLonjez*? Ba al dakizue nor den superhero hori? Bada, Gasteizko gazteen lonjak kudatzeko gutxieneko gomendioak ematen dituen pertsonaia da. **Geratu** bi ikaskiderekin, eta **banatu** zuen artean **hiru bideo hauek**. Ikusi, nork berea, egin laburpentxoak, eta **elkarri azaldu**.
 - SuperLonjez. Gida (1/3).
 - SuperLonjez. Gida (2/3)
 - SuperLonjez. Gida (3/3)
- ✓ **Sartu** Gasteizko Udalaren web-orrian, *Gazteria-Aisia* atalean. Hor, gazteek aisialdiaz gozatzeko aukera-sorta zabala aurkituko duzu: *Gazte Factory*, *Haziak*, *Gazte Klik*, *Gazte Hitzak*... **Ondo aztertu** guztiak, eta **pentsatu** zein eta zergatik gomendatuko zeniokeen zeure inguruko gazte bati (seme-alaba, neba-arreba, lehengusu-lehengusina, laguna, ikaskidea...). Ondoren, **harekin geratu**, eta **saiatu konbentzitzen**. Behin pertsona horrekin hitz egindakoa, **konpartitu** esperientzia ikaskide batekin: norekin hitz egin duzu?, zer gomendatu diozu?, zergatik?, zer erantzun dizu?...
- ✓ Nork esan du parranda gazteen kontua baino ez dela? Bateriaezinak al dira parranda eta adina? Hori ba, hori, mitoa! **Irakurri**, bestela, *Xelebreak* kofradiako bi kideri egindako *elkarrizketa*. Behin irakurrita, **idatzi** testu labur bat, horren inguruko zeure iritzia azaltzeko, eta **igo** euskaltegiaren blogera.
- ✓ Aisialdiko denbora emateko ohiturak aldatzen ari omen dira, eta gero eta jende gutxiago joaten omen da tabernetara. Krisiak, erretzearen aurkako legeak eta gazteen lokalek zerikusia izan dutela diote tabernariak. **Irakurri** *Gautxori gutxiago* izeneko artikulua, eta **prestatu eskema** bat zeure iritzia adierazteko: **egia ote da gero eta gautxori gutxiago dagoela?** Prestatu ondoren, **grabatu** eta **igo** euskaltegiaren blogera.
- ✓ Euskal esaera zahar batek dioen bezala, *Parranda gauean, logura goizean*. Ajea, biharamuna, bestondoa..., izen asko parrandaren osteko errealitate bati erreferentzia egiteko, ezta? **Irakurri** *Gozategi* taldearen *Kalanbreak* izeneko kantaren letra, baita **entzun** ere (*www.badok.eus*). Zer erremedio ezagutzen duzu ajearen (biharamunaren, bestondoaren...) efektuak arintzeko? **Egin** zerrenda bat, **eraman** ikasgelara, eta **konpartitu** ikaskideekin.
- ✓ Ba al dago parranda perfekturik? Zein da zure parranda perfektua? Lehenik eta behin, **ikusi** *Zein da parranda perfektua?* izeneko bideoa. Hor, bi gaztek azaltzen dute zein izan diren haien parranda perfektuak: Jonek karaoke bat du gogoan, aktiboa izateko eman zion aukeragatik; Xabik, ordea, gustuko parranda gisa oroitzen du ogitartekoa hartu eta Hondarribiko *Muara* tabernan dardotan jolasten aritzen zirenekoa. **Grabatu** zeuk ere bideo labur bat, kontatzeko zein izan den zeure parranda perfektua. Ondoren, **konpartitu** ikaskideekin edo/eta **igo** euskaltegiaren blogera.
- ✓ **Ikusi** *Lokaleroak* izeneko saioa. Euskal Herriko gazteen lokalak ageri dira bertan, lagun-kuadrillak... Atal honetan, Gasteizko Adurtza auzoko lokal baten berri jaso duzu. Ikusi ondoren, **grabatu** audio labur bat, zeure iritzia berri emateko: zer iruditzen zaizkizun horrelakoak, ea zuk edo zeure ezagunen batek ere horrelako batean parte hartu duen inoiz...